

tolosatzen prozesua - akta

Noiz: 2017ko azaroaren 8ko saioa, arratsaldeko 19:00etatik 21:00ra

Non: Kultur Etxeko Areto Nagusia

Parte hartze datuak:

- Partehartzaileak: 74
- Emakumeak:.....
- Herritarrak: 64
- Udal teknikariak: 10
- Dinamizatzaileak: Garikoitz Lekuona eta Iñigo Muñoz.

* Oharra: Egun eta ordu berean, baina Topagunean, tolosatzen Lab mahaia eratu zen helburu eta metodologia berezituarekin. Mahai horrek emandakoak beste akta batean jaso dira.

19:10-20:40.

A) Sektorialki egindako lanketa

- 19:10-19:20. Alorrez alor antolatutako mahaitan eseri dira alorreko teknikariak eta alorreko gaitan interesa azakldu duten herritar eta herri eragileak. Jarraian teknikariek abiapuntua marraztu dute: Urriaren 23ko saioan eta alor konkretuari dagokionez identifikatutako behar eta aukerak aintzat hartuz 2018 urteari begirako fokua zein gai edota proiektuetan jarri diren azaldu dute (2017ko urriaren 23ko saioa aktak jasotakoak). Era berean, aukera eta behar hauez gain, alor bakoitzeko teknikarien ustez aintzat hartu beharko liratezken bestelako gaiak ere azaldu dituzte.
- 19:20-19:30. Behin hori eginda parte hartzaileei banakako hausnarketarako tartea eman zai, honako galderak mahai gainean jarritz:
 - Foku bakoitzean eta abiapuntu horrekin 2018ari begira jarrita, zein izango litzateke datorren urte amaieran emaitza on bat?
 - Foku honi dagokionez zein urrats/ekintza bultzatu beharko genituzke 2018an?
 - Zehazki zer jardura edo proposamen egiten duzu 2018an gauza dezagun?
- 19:30-20:10. Taldeko elkarrizketa zabaldu da bakoitzaren proposamenak partekatu eta batze aldera. Teknikariak egin ditu idazkari lanak ekarpen eta hausnarketa desberdinak jasoz.

B) Kanpo begiradaren bitartez ekarpenak aberastea

- 20:10. Toki-aldaketa: parte hartzaileak beste mahai batera aldatu dira.
- 20:10-20:40. Mahai bakoitzeko teknikariak, abiapuntuko gaiak eta parte hartzaile bakoitzak egin ekarpenak kontuan hartuz, kokapen laburra egin die. Eta segidan taldeko elkarrizketa abiatu da, aurrez landutakoa aberasteko, matizatzeko, osatzeko, proposamen berriak gehitzeko... asmoarekin. Hauek guztiak jaso dira ere ekarpen bakoitzaren baitan.

D) Alorrez-alorreko ekarpenak

- Haur, nerabe eta gazteak

SORMENERAKO ESPAZIOAREN DEFINIZIOA ETA KUDEAKETA

Generazio ezberdinak uztartzeko gunea, adineko jendearen ekarpenak kontutan hartuz. Udalak kudeatutako sormen gunea, haroztegia, serigrafia, musika edizioa, kaldereria, dantza sormenarekin zerikusia duten disziplinak eta abar....eskainiz.

Bazkide sistema bidez funtzionatzea.

Ferialekuan, Batzoki Zaharra, Boxa eraikinak aukera posible bezala.

Gazteentzako espazio bat, gazteak ahalduntzeko, gazteek kudeatua herritar guztientzako, *enfocado no ha produzir cultura sino a empoderar a la juventud.*

Espazioaren definizioan gazteen parte hartzea EZINBESTEKOA da.

Tabakalera eredia. Udal ekipamendu batean espazio bat gazteek kudeatzeko aukera izan dezaten eskainiz.

Espazio honetan liburutegia sartuko litzateke.

Udalak, nahiz eskolek, sormen/esperimentazio ikastaroak eskaini beharko lituzkete.

Hirikilabs eredia. Gernikako Astra. Autogestionatua, sorkuntzarako guneak daude.

Dena digitalizatzeko beharra.

Arte plastikoak biltzeko beharra.

Jendeak, elkarteak, ez dute elkarren ezagutzarik eta hau bermatzeko espazioaren beharra dago. Elkarren berri edukitzeko.

San Estebaneko gunea egokia. Boxa-a edo aldameneko pabiloia.

Teknologian maker espazioak behar dira.

NOLA EMAN SORMENARI BEHAR DUEN ESPAZIOA UDALAK HAUR, NERABE ETA GAZTEENTZAKO ANTOLATZEN DITUEN JARDUERETAN. NOLA GORPUZTU SORMENA ARDATZ DUEN JARDUERA MULTZOA

Jarduera extraeskolarrak udalak antolatua, lotuta sormen ekintzekin.

Espazio baten beharra gazteak sujetu bezala artikulatzeko, topagune bat izateko, erreferentzia espazio bat.

EZIN DU IZAN URRUN dagoen espazio bat.

San Estebanen badago tokia.

DEFINIZIO PROZESUA MARTXAN JARRI EPE LABURREAN eta Udala pentsatzen joatea bitartean espazio batean.

Berdinex zerbitzua egon beharko luke.

Entsegu lokalak.

Hirikilabs: ezagutzen duen pertsona.

GAZTEEN EMANTZIPAZIOA ERRAZTEKO EDO SUSTATZEKO ZEIN NEURRI HAR DAITEZKEN

Alokairu etxebizitza gehio sortu. Etxebizitzak egiten diren bakoitzeko portzentai bat gazteei

zuzentzea.

Aholkularitza emantzipazioaren inguruan. Aholkuak emango dituen norbait.....kreditu, alokairu eta abarren inguruan aholkatzeko.

KOMUNIKAZIOA/TRANSMISIOA.

Udaletxeko emaila goizeko 3tan iristen da eta automatikoki ez dute irakurtzen.

Se trabaja muy compartimentalizado. No se trabaja conjuntamente. Debemos trabajar con educación.

14-16 es una franja perdida. Hay que acercarse a ell@s de otras maneras.

Hay una problemática con los locales.

- Kultura

Urtea bukatu aurretik blues kontzertu "potente" bat egitea.

Jarduerak egin ahal izateko egoitza egokiak eta baliabide ekonomikoak (subentzioak) aurretik jakin ahal izatea.

Dantza eskolako proiektua sortzen hastea.

TOPIC gehiago irekitzea herriko artisten lanak ezagutaraztea.

Herriko jardueren egitarauaren berri emateko agenda lantzea, ekimenen artean solapatzerik gerta ez dadin.

Udalak kultur-formazioaren aldeko apustu serioa egitea, espazio egokiak eskainiz.

- Gizarte Zerbitzuak

Reforzar mesas de trabajo. Integración personas inmigrantes. SUMA DE CULTURAS. Sociedad integral.

Berdintasuna. Elkarlana indartzen jarraitu.

Reforzar figuras mediadores de las zonas rurales. Personas de referencia para garantizar que la demanda real de las personas llegue al departamento de servicios sociales.

Elaborar guía pero accesible cognitivamente a toda la población (lectura fácil). Accesibilidad Cognitiva.

Reforzar el trabajo inter-sectorial, con otras instituciones, para intervenir desde una mirada integral.

Impulsar foros de trabajo común entre asociaciones. MÁS QUE UN ENCUENTRO PUNTUAL para conocernos.

Helduen eta gazteen elkarleen arteko ezagutza eta elkarlana indartu.

Abrir canales de comunicación y participación (el sistema actual no llega a la población en general).

Elaborar guía de asociaciones y difundir a la población. Visibilizar el movimiento asociativo. Defusión del registro de asociaciones municipales (?).

Intervención más inclusiva. Mirada sociedad inclusiva.

Tolosako herritarren egoera zein den publikatzea. Datu estatistikoak. Zein da benetan behar-izana? Zein da ematen ari garen erantzuna? Zein dira lagunetatik kanpo gelditzen direnak eta zergatik?

- Kirola

Skate. Felialekuan gune bat U bat jartzeko. Aurrera begira berriz, Usabalgo 3. fasean skate

gunea osatu (arauak ezarriz, heziketa eta ikastaroak antolatuz).

Bolei hondartza. Ferialekuan kantxa establea urte osorako. Txapelketa antolatuz, udazken-udaberri, EH indoor txapelketa. Iraileko txapelketa. Desgaitasuna duten pertsonentzako eskaintza. Saharako haurrentzako.

Mendi bizikletarako zirkuitu iraunkorra Iurramendiko egoitzaren inguruan (Oriako txirrindulariak eta Zumardi elkarte).

Irristaketa gune bat herrian, Amaroitz-Usabal, San Esteban eremutan, abiadurako patina praktikatzeko.

- Ingurumena eta lurralde antolaketa

Oria ibaiari buruzko ekarpenak

Garbiketa

- Garbiketa plana iraunkorra. Garbiketa kaleetako bezala egin beharko litzateke. Maiztasun handiagoa.
- Beharrezkoa da boluntarioak eta ikasleak ere parte hartzea kontzientziaziorako.
- 2017n egindakoaren balorazio positiboa. Zati bat boluntarioak, bestea enpresa batek.

Erreken lehenagotzea.

- Uraren kalitatea hobetzen ari da, baina ibai bazterrek ez dira kontuan hartzen. Adibidez Amaroitz-eko eremu berrian egin diren paretak atzera pausu handia da.

Oria ibaiaren azterketa

- Azterketa ez dadila zumardi txikira mugatu. Azter dezala eremu osoa eta erreka bazterren egoera.
- Ibaiaren diagnostiko zuzen bat behar dugu, proposamenak egiterakoan oinak lurrean izanda.
- Azterketak Oria ibaiaren inguruko ibilbide irisgarria egitea aztertu beharko luke.
- Zumardi txikia berreskuratu ! Bai baina kotxeentzako alternatiba eman.
- Azterketarekin batera sentsibilizazioa eta kontzientzazioa landu.

Landare inbaditzaileak

- Landarediaren kontrol bat egin. Nahiz eta jakin erradikazioa zaila dela. Gerra jarraia izan behar da. Birlanaketak kontuan hartu behar dira tresna eraginkor moduan

Erreabilitazioa eta Urbanizazioak

- Kaleen birurbanizazioak berdeagoak izan behar dira. Zuhaitzak ez dira berriz jartzen eta dena hormigoi buhurtzen da
- Gauza berriak egitea ondo dago baino dagoena ere mantenu egin behar da.
- Parkeak mantentzeko zailtasunak daude, asko ditugu. Agian batzuk kendu egin beharko lirateke edo beste batzuk naturak eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatuta.
- Irisgarritasuneko jarduerak eragileen partehartzearekin egin behar dira. Tolosa Mugik bezalako ekimeneatik ateratzen dena kontuan hartuz.
- Urteroko programa bat egin, auzoz auzo irizpide teknikoak gailenduz. Eraikinen birgaitzea ere sustatu ez soilik kaleena.

- Puntu beltzak izan daitezkeenak kendu.

-Alde zaharra bizitzeko lekua izan behar du. Ondo dago komertzioa eta turismoa bultzatzea, baina alde zaharreko biztanleak soinu maila oso altuak izaten ditugu, kotxeentzat lekurik ez eta gure etxeetan erreformak egiteko zailtasun handiak.

Nekazaritza bultzatzeko lur politika

- Udalak bitartekari lana jokatu dezake. Gertutasuna du. Baserritar bat ez da lur bankuen web orrian sartuko.

- Baserriak eta lurak uzten ari dira, lan handia dago egiteko. Bertara joan beharra dago, lur bankua osatu nahi badugu. Baliabideak behar dira, baserritarrekin harreman zuzena lantzeko.

- Esku pribatuetan dauden nekazal lur baliotsuentzat jabeekin negoziatzeko hitzarmen zirriborroak landu.

- Ekoizpenerako balio ez duten lursailak biodibertsitatea bultzatzeko lur banku batean sartu.

Mugikortasuna

- Mugikortasun arloan heziketa landu. Aurten ikastetxeekin egin denaren balorazio positiboa.

- Bizikletentzat bide eta bidegorri sarea osatu, landu.

- Uzturreko kaleko bidegorria aldatu, oso arriskutsua da.

- Geltoki kalean intermodalitatea bultzatu.

- Iurramendiko bidegorria aldatu edo berritu.

- Kotxeentzat aparkalekuak behar badira, alturan izatea pentsatu.

- Gazte zein helduekin mugikortasun inguruko tailerrak egitea.

Energia eta Klima aldaketa

- Erreabilitazio jasagarria bultzatu, energia eraginkortasuna kontuan hartuko duena.

- Eraikin publikoetan bioeraikuntza egin.

- Eraikinen kontsumoa jeistea, gastua kontrolpena edukiz.

- Geotermia instalatzea aztertu eraikin publikoetan.

- Garapen ekonomikoa eta enplegua

Apattako bigarren fasea. Zer enpresa motak espero dira? Aukera ona enpresa berriak erakartzeko.

Enplegu programa martxan jartzea. Programa honek eragina izan dezala tokiko enpresetan.

Autoenplegu mailan Oriaburu Coworking programa martxan jartzea.

Merkataritza. Datuen kudeaketa eta erabilera bezeroen fidelizazioa lortzeko, zerbitzu eta kanpaina berriak eskainiz.

Sensibilización y educación a los jovebes (comprar en Tolosa).

Turismoa. Kanpora joan (Donostia, Fitur...) Tolosako eskaintza turistikoa eskainiz eta bertan Tolosako presentzia indartuz.

Tolosa “merkataritza gune” bezala turistikoki saldu.

- Berdintasuna

Emakumeen etxea. Emakumeen etxeari bultzada eman. Maizago elkartu, kronograma, helburuak....Prozesua ireki uda/iñauteriak baino lehen.

Hezkuntza-afektibo sexuala berriro martxan jarri.

Jabekuntza Eskola (maskulinitate berriak, beste lurraldeko emakumeak). Emakume helduentzako tailer bereziak (*taller de la experiencia*). EPAren bidez, KZGunea.

Gurasoentzako tailerrak (eskolarekin lan, tailerrak eskoletan).

Hezkidetzan sakondu.

Sentsibilizazioa.

Behatokiari bisibilitate gehiago eman. Baita asteburuetarako, ez soilik festeetarako.

Elkarguneak jarri neskekin etxera joateko.

- Euskara

Erabilera helburu izanik, erabilerak gora egitea, nahiz eta jakitun izan hori ez dela urte batetik besterako kontua izaten.

Euskaldunak aktibatze ekimenak martxan jarri eta horra bildu herriko elkarte, erakunde, taldeak.

Euskararen erabilerari begirako baldintzak diru-laguntzetan.

Etorkin nerabe/gazteen euskalduntzea indartu.

E365E ekimena martxan jarri.

- Hezkuntza

Hezkuntza-Udala: interlokuzioa hobetu, bitartekaritza lanak egin.

20:40-20:55. Plenarioa

- Teknikari dinamizatzaileak arduratu dira minutu bateko denboran gehienez mahaian adostutako giltzarrizko ideiak partekatzen. Eta hau burututa eta jarraian eransten den ebaluazio-galdetegia bete dezaten proposatuz amaitu da saioa.
- Ohar bezala eta joan aurretik parte hartzaileei jakinarazi zaie saioaren akta helaraziko zaiela eta Tolosako web orrian zintzilikatuko dela.

Ebaluazio-galdetegia

- Orokorrean, nola baloratzen dituzu Otik (oso gaizki) 10era (oso ongi):

	Otik 10era	Oharrak, azalpenak
Urriaren 23ko 1go saioa		
Azaroaren 8ko 2. saioa		

- Banan-banan honako alderdiei erreparatuta, eta 2 saioak kontuan hartuz, nola baloratzen dituzu 0tik (oso gaizki) 10era (oso ongi):

	0tik 10era	Oharrak, iruzkinak
Saioetarako deialdia		
Parte hartu duen taldea (tamaina, profila...).		
Saioen planteamendua		
Talde-lanaren dinamizazioa		
Saioen ordutegia eta iraupena		
Espazioa		

- Azkenik, orokorrean:

Zer nabarmenduko zenuke modu positiboan?	
Zer iruditzen zaizu hobetu edo/eta birpentsatu beharrekoa?	
Bilera hauetatik, zerekin geratzen zara?	